Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1355

AGINDUA, 2010eko urtarrilaren 11koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Bilboko (Bizkaia) Eragintza Fundazioaren estatutuen 4. artikuluaren (helbidea) aldaketa onartzeko eta inskribatzeko dena.

Ikusi eta aztertu dugu Eragintza Fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskaera biltzen duen espedientea.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Fundazioen Erregistroan, 2003ko abenduaren 18an, Eragintza Fundazioaren gerentea den Idoia Azaldegui Alba andreak sinatutako idazkia izan zuen sarrera. Horren bitartez, Fundazioaren helbidea aldatu zela jakinarazten zen.

Bigarrena.– Geroago, 2004ko otsailaren 20an, Eragintza Fundazioaren gerentea den Idoia Azaldegui Alba andreak sinatutako idazkia izan zuen sarrera. Horren arabera, Fundazioa helbidez aldatu zela eta horri dagokion estatutuen artikuluaren aldaketa inskribatzeko eskatu zen.

Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu ziren:

Egoitza sozialaren aldaketaren eta horri dagokion estatutuen artikuluaren aldaketaren eskritura publikoaren kopia bikoitza baimendua, José María Vázquez Eguskiza jaunak, 2004ko urtarrilaren 9an, Bilboko notarioa den Vicente María del Arenal Otero jaunaren aurrean emandakoa (31 protokolo zenbakia).

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro, Aholkularitza eta Kontrol Unitateko zerbitzu teknikoek espedientea aztertu eta ebazpen-proposamena egin dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio, agindu bidez, estatutuen aldaketa inskribatzeko espedientearen ebazpena ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

1355

ORDEN de 11 de enero de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se aprueba e inscribe la modificación del artículo 4 (domicilio) de los estatutos de la «Fundación Eragintza» de Bilbao (Bizkaia).

Visto y examinado el expediente en el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la modificación de los Estatutos de la «Fundación Eragintza».

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– El 18 de diciembre de 2003 tuvo entrada en el Registro de Fundaciones escrito suscrito por la Gerente de la «Fundación Eragintza» Doña Idoia Azaldegui Alba, mediante el que comunica el cambio de domicilio de la Fundación.

Segundo.– Posteriormente, el 20 de febrero de 2004 tuvo entrada en el Registro de Fundaciones escrito suscrito por la Gerente de la «Fundación Eragintza» Doña Idoia Azaldegui Alba, de solicitud de inscripción de traslado de domicilio de la Fundación y consiguiente modificación de artículo estatutario.

A la solicitud se adjunta la siguiente documentación:

Doble copia autorizada de la Escritura pública de traslado de domicilio social y consiguiente modificación de artículo estatutario otorgada el 9 de enero de 2004 por D. José María Vázquez Eguskiza, ante el Notario de Bilbao, D. Vicente María del Arenal Otero, número 31 de su protocolo.

Tercero.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos de la Unidad de Registro, Asesoramiento y Control de Fundaciones del País Vasco que, a su vista, han elevado Propuesta de Resolución.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de modificación estatutaria, en virtud del artículos 40 de la Ley de Fundaciones del País Vasco, el artículo 3 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco y el Artículo 9.1.e del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administra-

finkatzen dituen lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 9.1.e artikuluaren arabera.

Bigarrena.– Estatutuen aldaketa onartzeko eta, ondoren, aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko espediente honi funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan baita Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza Antolatu eta Jardunean Jartzeko Arautegia onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 62. artikuluan ere eskatutakoak (honako hau aplikagarria da ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraituz).

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan ezarrita dagoen arau-aurreikuspena betetzeari dagokionez, adierazi behar da estatutuen aldaketak Fundazioaren helburuak aldatzea ez badakar, eta beti ere horri dagokionez fundatzailearen berariazko debekurik dagoela jasota ez badago, Babeslaritzaren Aholku Batzorde Teknikoak 2009ko irailaren 10ean ezarritako irizpide berriei jarraituz, fundazioaren helburua errespetatutzat joko dela eta ez dela beharrezkoa izango aipatutako artikuluaren 4. zenbakiak jasotzen duen Babeslaritzaren aldez aurreko oniritzia. Hori guztia ulertzen delako debekurik ez egotea, hasiera batean, bakarrik ezarri daitekeela, segurtasun eta zehaztasun juridikoaren arrazoiak direla medio, fundazioaren negozioa gauzatzen denean.

Hirugarrena.– Fundazioen estatutuen aldaketak inskribatzeko oro har eskatzen diren baldintzez gain, halaber, gai horri buruz fundazioaren estatutuetan jasotzen diren arau bereziak ere betetzen dira.

Laugarrena.– Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 73. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz, aipatutako espedienteak metatu ditugu, lotura estua daukatelako, eta denak batera ebatziko ditugu ebazpen honen bidez.

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea, Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta jardunean jartzeko Arautegia onartzeko den urriaren 18ko 404/1994 Dekretua eta aplikagarri diren gainerako arau orokorrak,

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Onartzea, Eragintza Fundazioaren estatutuen 4. artikuluaren (helbidea) aldaketa.

ción de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Segundo.– Al presente expediente de aprobación de modificación estatutaria y ulterior inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos previstos en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, así como en el artículo 62 del Decreto 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Protectorado y del Registro de Fundaciones del País Vasco (aplicable en virtud de lo dispuesto en la Disposición Transitoria del Decreto 101/2007, de 19 de junio).

Respecto del cumplimiento de la previsión normativa establecida en el artículo 31 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, cabe indicar que salvo que la modificación estatutaria implique la modificación de los fines de la Fundación y siempre que no conste prohibición expresa al respecto por parte del Fundador, de acuerdo con los nuevos criterios establecidos por la Comisión Técnica Asesora del Protectorado en la reunión de 10 de septiembre de 2009, se presumirá que se respeta el fin fundacional, no siendo necesaria la aprobación previa del Protectorado a que se refiere el nº 4 del citado artículo. Todo ello porque se entiende que la no existencia de prohibición en principio solo puede establecerse, por razones de seguridad y claridad jurídica, en la formalización del negocio fundacional.

Tercero.– Además de los requisitos exigidos con carácter general para la inscripción de las modificaciones de estatutos de las Fundaciones, se cumplen las reglas que, con carácter particular, recogen los Estatutos de la Fundación al respecto.

Cuarto.– De conformidad con lo establecido en el artículo 73 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se produce la acumulación de los expedientes citados por íntima conexión, pasando a resolver de forma conjunta mediante la presente Resolución

Vistos la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 404/1994, de 18 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento y Funcionamiento del Protectorado y Registro de Fundaciones, y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública

RESUELVE:

Primero.– Aprobar la modificación del artículo 4 (domicilio) de los Estatutos de la «Fundación Eragintza».

Bigarrena.– Agintzea Fundazioaren estatutuen aldaketa agindu honen dataz inskribatzeko, José María Vázquez Eguskiza jaunak, 2004ko urtarrilaren 9an, Bilboko notarioa den Vicente María del Arenal Otero jaunaren aurrean emandako (31 protokolo zenbakia) egoitza sozialaren aldaketaren eta horri dagokion estatutuen artikuluaren aldaketaren eskritura publikoan ezarritakoari jarraituz.

Inskripzio honen arabera, Fundazioaren helbidea udalerri berean kokatuko da, hau da, Bilbon, Iruña kaleko 17 zenbakian.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea bukatzen du. Aurka egiteko, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 11.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Segundo.– Ordenar la inscripción de dicha modificación estatutaria de la Fundación, con la fecha de la presente Orden, de acuerdo con lo establecido en la Escritura pública de traslado de domicilio social y consiguiente modificación de artículo estatutario otorgada el 9 de enero de 2004 por D. José María Vázquez Eguskiza, ante el Notario de Bilbao, D. Vicente María del Arenal Otero, número 31 de su protocolo.

De esta inscripción, el domicilio de la Fundación pasa a situarse en el mismo término municipal, es decir, Bilbao, en la c/ Iruña, nº 17.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de enero de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.